

Arrasate

2000.eko
azaroaren 17a
517. zenb.

P R E S S

Herri bursa



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: RAFA BASTARDO
KIROLA: BEHOBIA-DONOSTIAKO EMAITZAK • KULTURA: DEBAGOIENENKO ABESBATZA

ITURRIOTZ

A R R A S A T E

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

Afrontu sasoirako hiztegitxo (1)

Udazkenak eguraldi zakarra ekarri du, baina jasaten ari garen afrontu nagusia ez da Galiziatik datorkiguna, Espainiakoa baizik. Babes Zibilekoei, kasu honetarako, hiztegitxo bat proposatzen diet, nahasmenari aurre egin ahal izateko. Hemen definizio batzuk:



Mikel Irizar

- Autodeterminazioa: etorkizuna erabakitze eskumena, erreferendum bidez gauzatzeko dena. Erabakitzen dena, independentzia edo kontrakoa izan daiteke.

Argitu beharrean da, autodeterminazio eskubidea Ebrotik Aturrirainoko giza multzo bakarrari edo lurralde historikoei dagokien. Ez da kontu hutsala.

- Independentzia: loturak aukeratzeko eskubidea; lotura ezik ez dago. Autodeterminazio erreferendumean, unionis-

moaren beste muturrean kokatuko den aukera. Indar metaketaren bidez lortuko dena, lortzekotan. Euskal gizartearen gehiengoak hobeto bizitzen lagunduko diola sinesten duenean. Sedukzioz eta fineziaz egin beharreko lana. Zerikusirik ez tiro, bonba eta erreketekin.

- Stormont: Irlandako prozesua dela eta, modan jarri den izena. Telesforo

Monzonek Maltzaga esaten zion.

Azken helburu ezberdinak dituzten alderdien artean, bidaia zati batzuk

elkarrekin egiteko adostasunari esaten zaio. Unionisten artean oso landua dago kultura hau, abertzaleen artean ez. Hortik, gero eta nabaria goa den desoreka.

- Unionismoa: Euskal Herria Espainiarekin orain arte bezain lotua, edo lotuago, nahi dutenen pentsamoldea. Zilegia eta

errespetagarria, ez balitz kontrako pentsamoldea legez debekatzen dutelako. Konstituzioa egokitu, autodeterminazioa aitortu eta gero loturaren onurak azaltzen dituztenean, sinesgarriagoak izango dira.

- Espainolismoa: unionismoaren fanatikoak, ultranazionalistak. Azkenaldian, unionismo ia guztia kutsatu dute, nahiz sozialisten zalantza batzuk agertzen hasi diren. Jaime gurea dute jefe, eta badirudi hauen paranoiak ez duela bake onik izango euskaltasuna ezabatu arte. Denontzat hobe unionistek sektore hau berriro zokoratzen badute.

- Olemedia: espainolismoak lortu duen batasun multimediari esaten zaio. Euskal gaietan dotrina ofiziala besterik gabe onartzeko hedabideek duten jarrera. Paranoia espainolista hedatzen ari diren neurrian, oso kaltegarria. Orain finkatzen ari diren ideia asko, gero hankaz gora jarri beharko dira, konponbidea posible izango bada. Ulertezina, kirtenkeriarik handiena nork esango sortu den lehia.

(jarraitzeko)

Udazkeneko eguraldi txarra ez da Galiziatik datorkigun afrontua, Espainiakoa baizik

“Paradoxa bat dago emakumearen bizi itxaropen eta kalitatearen artean. Lan-baldintzak direla-eta, luzeago bizi gara, bai, baina gizonek baino gaitz kroniko gehiago ditugu”

Izabella Rohlfis

22.611

bidaiari izan ditu herri autobusak iraila eta urria bitartean.

Leintz Garraioak enpresak emandako datua da. Herri autobusa jende askok erabiltzen duela dirudi. Zerbitzua hasi zenetik, astero 3.200 pertsonak erabiltzen du herri autobusa.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia 3
- Asteko gaia 18/19
- Afrontu sasoirako hiztegitxo
- Herri autobusa, kalean gora kalean behera
- Irakurlea idazle. 4
- Aurrez aurre 20/21
- Inkesta 5
- Izabella Rohlfis
- Euren ikuspuntutik 6
- Zaldibar areto futbola . . . 22
- Arau baztertzaila
- Eskola kirola 24
- Begi kolpez 7
- Kirolak jokoan 25/26
- Asteko hitzorduak 8/9
- Kulturaren txokoa 27/29
- Astearren errepasoa 10
- Ikusi eta entzun 30/31
- Orain eta hemen 11/12
- Azoka plaza 32/33
- Txutxumutxuak 15/16
- Foto zaharra 34

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubena Madera eta Leire Kortabarria. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantzazu Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Truxuelo. Asteburutako berriemakaldea: Lorea Agiriano Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saria. Banaketa arduraduna: Naiara Odozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Logo-Gordailua: 1124/86. ISSN: 0214-4654. Frankeo-kontratatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldi-kontratu adierazitako esanien eta inbentzio erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Truxuelo.

Arrasateko Udaleren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualarioria 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Astelehenetik
 larunbatetara 17:00etatik 20:00etara
 Igandeak eta jai egunak egun osoa
 Arrasate
 Astelehenetik
 ostiralera 08:00etatik 17:00etara
 Larunbatetara 09:00etatik 17:00etara
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 17
 - Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 18
 - Ruiz, Maalako Errabala
- Igandea, 19
 - Morales, San Andres
- Astelehena, 20
 - Azkoaga, Ferrerías
- Astearte, 21
 - Azkoaga, Iturriotz
- Asteazkena, 22
 - Korkuera, Musakola
- Osteguna, 23
 - Irizar, Erguin

LEGEA DENONTZAT BERDINA IZAN DADILA

Arrasaten, 2000. urteko azaroan

2000. urteko urtarrilaren 5ean hamar lagunek bidea moztea erabaki genuen bertan kateatuz. Arrazoiak hauek izan ziren:

- Euskal Presoen Euskal Herriratzea exijitzea.
- 3/4ak beteta dituztenen kaleratzea exijitzea.
- Gaixotasun sendaezina dituztenen kaleratzea exijitzea.

Orduko egoera sozio-politikoaren errezatzearen ondorioz, arrazoiak ere arrazoiak izan ziren:

- Euskal presoen gose greba mugagabea, non horietako bik 63 eta 56 egun egin zituzten.
- Euskal Herriko gose greba nazionala (3 egun lehena-goa amaitua).
- Alderdi politikoen inplikazio eza.

Hau guztia modu bake-tsuan salatu izanagatik epai-tuak izango gara, EAJ-EAREN agindupean dagoen Ertzaintzaren eskutik jarritako salaketaren ondorioz.

Orduko egoera bezala, oraingoa ere salagarria iruditzen zaigu; azken aste haue-tako presoen urrutzeak ager-ian uzten du estatu espainol zein frantsesek hauekiko duten jarrera, preso eta senideen

sufrimendua areagotuz eta agerian utziz legea betetzea-ri buruz duten kontzeptua.

Garai hartan alderdi poli-tikoen inplikazio maila txikia bazen, gaur egun ezerezean geratu da. Gainera, ez sala-tzetik Euskal Herriko oihar-tzuna dena (EPEH) isilarazi nahi dute isun eta kartzela-zigorren bitartez.

Legea bete dezaten exiji-tzeko, Euskal Herri osoari dei egiten diegu horrelako ekin-tzak aurrera eramatera.

Arrasateko Solidarioak

Laburbilduz

Gaurkoaz bidezko merka-taritzaren inguruan haus-nartzeko erabilitako tarte honi amaiera emango dio-gu azken bost asteetan lan-dutako ideiak laburbilduz. Era labur-laburrean ondo-rengoak aipatu izan ditugu:

- Gaurengoko gizarte-an geroz eta gauza gehiago dira enpresetan (eta ez era-kunde publikoetan) eraba-kitzen direnak. Enpresen jokaera ezin dugu hautes-kunde bidez kontrolatu, bai-na bai gure erosketen bidez.
- Erosten dugun gau-za oro norbaitek egin du eta gu ere ez gara kontsumi-tzaile huts; langile ere baga-ra. Kontsumitzeko orduan munduko langile guztien eskubideak errespetatzea-ren alde egiten ez badugu gure langile izaeraren aur-ka arituko gara.
- Ez gaitezen gera bes-teek arazoak konpon ditza-ten zain. Bidezko merka-taritzak bidegabeko egoe-ra gaizto horri erantzuna eman nahi dio eta guztiok lagundu genezake bide horretan. Etsipen erosotik irten eta ekiogun bideari.
- Bidezko merkatar-i-tzak ez die Hirugarren Mun-duko pertsoneri karitatez lagundu nahi. Euren dena, bidezkoa den arren eta sis-temak ukatzen diena beste-rik ez die eman nahi.

Harreman Bidezko Merkataritza Denda


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE


Zer deritzozu herri autobusari?

Orain dela bi hilabete hasi zen herri autobusaren zerbitzua



Nicanor Alvarez
(66 urte)
Erretiratua

Oraindik ez dut aukerarik izan autobusa erabiltzeko, baina iritsiko da horretarako eguna. Egin zezaketen gauzarik onena egin dute.



Konsuelo Ezkurra
(76 urte)
Erretiratua

Ez naiz oraindik ibili, baina ondo ikusten dut horrelako zerbitzua egotea.



Jabier Sedano
(20 urte)
Ikaslea

Ez naiz inoiz ibili, baina ondo dagoela uste dut.



Ana Sancho
(32 urte)
Langilea

Zerbitzu egokia da, baina ez dakit nahikoa den. Ikusi egin beharko dugu jendearen eskaria zein den.




Nerea Jodar
(14 urte)
Ikaslea

Goizero erabiltzen dut eskolara joateko. Oso ondo dago.



Auria Balado
(49 urte)
Langilea

Nik ez dut erabiltzen, baina ondo dagoela uste dut.



Ander Hernandez
(15 urte)
Ikaslea

Ez naiz Arrasatekoa; behin bakarrik erabili dut eta hemen-dik ibiltzeko ondo dagoela deritzot.



Emili Legarda
(42 urte)
Langilea

Ez dut erabili, baina ondo dagoela uste dut. Hala ere, nik neuk nahiago dut oinez ibiltzea.

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

GANBARA

- Enmarkazioak
- Laminak
- Estiloko markoak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Gambrinus
garagardotegia

Esperientziadun
ZERBITZARIA
behar da.

Lanpostua finkoa izan daiteke
Tel.: 667 60 27 69

USTEAK USTE

Kulturaren elkarlanean

Santa Zezilia eguna izango da azaroaren 22an: musikarien eguna. Arrasaten lagun askok ospatuko dute Santa Zezilia, asko baitira musikan aritu eta aritzen direnak. Larunbatean ere, musikazale asko dagoela erakutsiko dute hainbat herritarrek. Bergarako Orfeoiaekin batera, Goikobaluk kontzertua eskainiko du. Eta abendurako, Goikobaluko, SUDCeke eta orokorrean zarzuelazaleak direnak beste emanaldi bat prestatzen ari dira. Gogoz, borondatez eta elkarlanean gauza ederrak egin daitezkeen erakusle. "La taberna del puerto" zarzuela Amaia antzokian eskainiko dute, hilabetetan lanean ibili eta gero. Baina, emaitzak merezi duenez, lan egiteak dakarren esfortzua txiki gelditzen da. Herriko kultura eskaintza zabaltzeko aukera bat da, eta horren adibide, elkarlana dela bidea erakutsiko digute musikazaleek, beste behin ere; lehen ere askotan erakutsi digute hori, baina konturatu ez denarentzat, hortxe, berriz ere, ohartzeko aukera.

Marijo Deogracias



Arau baztertzailea

* Rafa Bastardo

Giza Inmuno-eskasiaren Birusa (GIB) duten gutxituen estatuko mahaiak, "GIB eta Hiesaren aurkako Herri Mugimendu"-ko 70 GKE baino gehiagoz osatua, gizartearen arlo guztietara (alderdi eta talde politikoak, profesionalak, gobernu kanpoko erakundeak, komunikabideak...) helarazi nahi du 2000ko urtarrilaren 26ko "17971/99" errege-dekretuaren ezarpena deusezteko egin duen salaketa, GIB inmuno-eskasiari dagokionez.

Gaur egun, dekretuaren erabilerak laguntza ekonomiko nahiz beste eskubide batzuk debekatzeko dizkie gaixoei, diskriminazio eta murrizketa kriterioei kasu eginez.

- Baztertzaileak dira, gutxitu izatetik etor daitzkeen giza eskubideen galerak kolokan jartzen direlako.

- Sendagaiek eragin dezaketen bigarren mailako efektuak kontuan hartzen ez dituelako. Gainera, ez du uzten GIB-ri dago-

kion "gutxitu maila" eta "gai-xotasun indize" direnak konbinatzea.

- Bere askatasunei eta eskubideei kasu eginez, infekzioa beste modu batean erabiltzeko aukera egiten duten pertsonak kanpoan uzten dituelako; hau da, anti-erretrobiral sendagaia hartzen ez dutenak.

- Gaixotasunetik etor daitzkeen faktore psikologikoa ez dira jasotzen, eta kontuan izan beharreko gauza da hau.

- Lege hau errealitatetik urrun dago; izan ere, %33ko gutxitu bat arautu nahi du inmuno-eskasiaren egoera

“
Gure bailaran egonezin handia sumatzen hasi gara lege horrek ekar dezakeen arazoa dela-eta
”

larria bezala, 50 "CD-4 linfozito" baino gutxiago izateko. Normalena, 1.500-4.500 izatea litzateke.

CD-4ren irizpidea, klinikoki, aspaldi ez da erabiltzen. Infekzioan beste erakusle batzuk begiratzen hasi ziren, karga birala, adibidez; eta dekretu horrek ez ditu aipatu ere egiten.

- Kontraesankorra iruditzen zaigu, maila bakoitzean ezgaintasun maila bat aurreikusitako arren, inongo kasutan ez delako kontuan hartzen ospitaleko gutxieneko harrera batzuk egiten direla eta horri 24 orduko edo hilabeteko egonaldiak gehitu behar zaizkiolako.

- GKE-ek ez dugu zenbaki zehatzik, kendu diren edo berriz ikuskatu diren pentsioak zenbat diren esateko, baina gure bailaran egonezin handia sumatzen hasi gara lege horrek ekar dezakeen arazoa dela-eta. Zergarik ordaindu behar ez duen pentsioa gaur egun GIB birusa duten pertsona askok jasotzen duten sarrera ekonomiko bakarra da (ez da 42.000 pezeta baino gehiago izaten) eta hori kenduz gero, kontuan izanik arazo fisiko, psikologiko eta giza-laboralak izan ditzakeela, pertsona horien bizi-kalitatea arriskuan jartzen dute eta hainbat aktibitate gizakiarentzako modu ahalik eta normalenean egiteko aukera kentzen die.

*Hies Berriko kidea



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erlebedun hizkiak



ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

ezkontzak

- Roberto Hierro Perez eta M^a Inmaculada Jimenez Ramirez, azaroaren 11n.

jaiotzak

- Iker Heriz Agirre, azaroaren 7an.
- Oier Garitano Amedo, azaroaren 11n.

heriotzak

- M^a Kruz Unanue Lete, azaroaren 8an, 81 urte zituela.
- M^a Teresa Altuna Azpeitia, azaroaren 9an, 62 urte zituela.
- Juana Rodriguez Carrasco, azaroaren 12an, 46 urte zituela.
- Miguel Angel Martin Hernandez, azaroaren 11n, 40 urte zituela.
- Nicolasa Añibarro Pagasartaundia, azaroaren 13an, 71 urte zituela.

mezak

San Joan parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

- Jaiegun bezpera eta larunbata**
19:00 (gaztelaniaz)
- Igandea**
12:00 (gaztelaniaz)

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentroa



OSTIRALA 17



LARUNBATA 18



IGANDEA 19

Lainoak areagotuko dira egunak aurrera egin ahala eta hotz egingo du. 1.100 m.tik gora elurra egin dezake.

Lainoek euria ekarriko digute tarteka eta haizeak mendealetik ahul joko du.

Euria egingo du tarteka eta zaparradak ere izango dira. Temperatura ez da aldatuko.

eskelak


Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdia

Tel.: 943 71 23 91

Urkuluko uraren maila

%69,1



Ilargia



Ilbehera

Larunbatean, azaroaren 18an, ilbehera izango dugu.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Asteleheneretan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

EGUZKIGRAF
inprimategia
ARETXABALETAN
Industrialdea F-0-4
Finca: 791844
Fax: 792911

17
ostirala

■ **ZINEMA**

Fugitivas: 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

■ **ANTZERKIA IAMAIN**

Kontzeziño kaleko Iamai kafetegian *La Cebra Enamorada* antzezlan eskainiko da, 00:00etan.

■ **BERTOKO JAIA**

Gure Leku tabernan Bertoko garagardoaren jai egingo dute gau partean.

■ **JAM ARETOA**

Metalium eta *Avalon* taldeen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Sarre-rak 2.300 pezetan alde aurretik; txarteldegian, 2.500. 22:00etan.



18
larunbata

■ **ZINEMA**

Fantasia 2000: 17:00. Guztiondako. *El Bar Coyote*: 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

■ **LUDOTEKA**

San Andres Herri Eskolan izango da Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria, 11:00etatik 13:00etara.

■ **GOIKOBALU ETA BERGARAKO ORFEOIA**

Emanaldia eskainiko dute Goikobalu Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak. Sarre-rak 1.500 pezetan salduko dira; bazkideendako, 1.000. Amaia antzokian, 20:00etan.

■ **ALBERT PLA JAMEN**

Albert Pla eta *Benito Malasangreren* emanaldia izango da Jam aretoan. Alde aurretik 1.200 pezetan daude sarrerak; txarteldegian, 1.500. 22:00etan.

19
igandea

■ **ZINEMA**

Fantasia 2000: 17:00, guztiondako. *El Bar Coyote*: 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

■ **ANTZERKIA AMAIAN**

Shakespeare taldeak "Hipo" antzezlan jokatuko du. Sarre-rak 1.000 pezetan; gazte txartelarekin, 800. Amaian, 19:30ean.

21
asteartea

■ **ZINEMA**

El Bar Coyote: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako. Ikuslearen eguna.

20
astelehena

■ **ZINEMA**

El Bar Coyote: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako.

22
asteazkena

■ **EMAKUMEA MITOLOGIAN**

Emakumea euskal mitologian (Goi andereak, matriarkatua eta beste mito batzuk) hitzaldia emango du Anuntxi Arana antropologoak, AEDren eskutik, Monterronen, 19:00etan.

EAREN bazkaria



Zapatuan, hilak 18, ardi eta buzkantza bazkaria egingo du Arrasateko Eusko Alkartasunak, euren egoitzan, 14:30ean.

23

osteguna

■ ZINEMA

La Gran Vida: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerako-endako.

■ AZAROKO ZINEMA

François Dupeyron zuzendariaren *¿Qué es la Vida?* filma eskainiko da. Amaia antzokian, 21:30ean.

■ SYLVAIN SYLVAIN

New York Dolls taldeko partaide ohia den *Sylvain Sylvain* kontzertua izango da Jamen. 22:00etan.

Corazon de Encinaren Eguna

EGUBAKOITZA, 17

- 17:00 Poesia eta hizlari lehiaketa.
- 18:00 Jokoak eta lehiaketak. Ondoren, txokolate-jana.
- 20:00 Extremaduraren inguruko bideo emanaldia.
- 23:00 Algiber taldearen emanaldia.

ZAPATUA, 18

- 12:00 Extremadurako paisaien diapositibak.
- 13:00 Ohorezko brindisa.
- 14:30 Babarrun-jana.
- 16:30 Kuartrola finalak.
- 18:00 Elkarteko musika eta dantza taldeen emanaldiak. Ondoren, joko eta lehiaketetako sari banaketak.
- 24:00 Gardoki taldearekin erromeria handia.



■ ODOL-EMATEAK

Odol-ateratze saioak egingo ditu Odola Sartzeko Euskal Zentroak azaroaren 22, 23, 27 eta 29an. Arrasateko Anbulatorioan izango dira 16:00etatik 20:00etara.

■ IZEN-EMATE EPEAREN AMAIERA

Azaroaren 17an amaitzen da Emakumea eta Literatura tailerrerako izena emateko epea. Monterrera jo behar da horretarako.

■ OLINPIADETARA TXATXILIPURDIREKIN

14 eta 18 urte bitarteko gazteendako Neguko Olinpiadak antolatu ditu Topaguneak. Itsasondan izango dira, azaroaren 25ean. Arrasatearrek Txatxilipurdirekin joateko aukera izango dute. Izen-ematea Txatxilipurdiren egoitzan edo Gazte Txokotan egin ahal izango da, azaroaren 20ra arte.

■ SOLDADURA IKASTAROA

Emakume langabeendako soldadura ikastaroa antolatu du Udalak. Azaroaren 24ra arte dago zabalik izena emateko epea. Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuan egin beharko duzue, edo 943 79 09 00 telefonora deituta.

■ IRAKURKETA TAILERRA

Euskarazko irakurketa lantzeko ikastaroa antolatu

du Ekin Emakumeak elkarteak. Azaroaren 30ean hasiko da, eta zabalik dago izena emateko epea: elkartean bertan egin beharko duzue, edo 943 77 12 28 telefonora deituta.

■ SANTA ZEZILI KONTZERTUA

Santa Zezilia, musikari zaindariaren eguna, ospatzeko ikasturteko lehenengo kontzertua emango du Arrasate Musikalek azaroaren 24an. Euren egoitzako Areto Nagusian, 18:30ean.

■ ARIZMENDI TOPAKETAK

Azaroaren 30ean egingo dira aurtengo Arizmendi Topaketak. "Lankidetzak. Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua" liburua aurkeztuko da, eta Jose Antonio Pagola bikarioak "Ba al du etorkizunik gizarte teknologikoan Jainkoarengan sinesteak?" hitzaldia emango du. Eskola Politeknikoan, 18:30ean.

■ GOI MENDI IKASTAROA

Hastapena eta Seguritasuna Goi Mendian ikastaroa eskainiko du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, Tena bailaran. Bergarako Pol-Pol Mendi Taldearen egoitzan eman daiteke izena, 943 76 48 51 telefonon.

Expres kafetegia

- Ogi egin berria
- Urdaiazpiko egosia
- Olagarroa eta riveiro ona
- Kazuelatxoak

On egin!!

Maalako errebala, 8 • Tel.: 943 77 13 87

astea bi hitzetan

■ Sanmilixanak

Inoiz baino erakustoki gehiago egon da aurten Gatzagako San Milixaneko artisau azokan; eta, ondorioz, inoiz baino eskulan gehiago erakutsi dira: zeramika, esku pilotak, egurrezko jostailuak, artilezko galtzak, kandelak... denetarik.

Horrez gain, gatzaren museoa eta txondorra bisitatzeko aukera ere izan zuten Gatzagara igo ziren bisitariak. Eta ez ziren gutxi izan; inguruko jende askok hartu zuten domekan Gatzagarako bidea.

■ Ikerlan-CEIT-MCC

Donostiako CEIT enpresa-

rekin batera, Ikerlanek eta MCCk mikrosistemen Ikerkuntzarako Zentroa sortu dute. Mikrosistemak diseinatu eta zentro berriak egin-ego ditu, enpresen zerbitzuan. Horixe da, hain justu, zentro berriaren helbururik nagusia: ikerkuntza eta enpresa hurbiltzea.

Datozen lau urteotan 2.000 milioi pezetako aurrekontua izango du proiektu horrek. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Madrilgo Gobernuak diru kopuru horren zati handi bat ipiniko dute.

Egoitza, berriz, Miramongo teknologiagunean egongo da.

■ Erama jatetxea

Auzo Lagun kooperatibak eta Eroskik jatetxe kate berri bat sortu dute: Erama. Eroskiren saltoki handietan baka-rrik jarriko da. Oraingoan, lau daude: Garberan bat, Usurbilen bestea eta Euskal Herri-kanpo beste bi: Zamoran eta Santanderren.

■ Kale bilkura

ETAren atentatu baten ondorioz hildako bat izaten den bakoitzean egiten den bezala, pasa den eguenean kale bilkura isila egin zen Mondragoen. Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, Jesus Sanchezen heriotza salatu zen.



Bidezko Merkataritza
Comercio Justo y Solidario



■ Bidezko merkataritza

Bidezko merkataritza zer den jakitera eman, eta duen garrantziaz jendea jabe-arazteko ekitaldi berezia antolatu zuen larunbatean gobernu kanpoko Harreman taldeak. Bidezko merkataritzak eskaintzen dituen produktuak erakusten egon ziren Hiper Eroskiko sarreran; besteak beste, kafea eta txokolata banatu zituzten.

“ Teknologiaren garapena euskal enpresaren barruan, ereduzkoa da. Denbora luzea daramate horretan lanean. Eta enpresa-garapen teknologikoa erlazioa aldatzen ari da. Orain arte berrikuntzan egindako bultzadak eskari puntualeri erantzuteko ziren. Orain, ordea, beharrezkoa da enpresaren eta zentro teknologikoaren arteko elkarlan estua eta epe luzera helburuak ipintzea. Espainiaren beste aldean dauden multinazionalak garamatzen ekonomiaren globalizazio efektuak eta garapenean duten aukera ekonomikoak esfortzuak batzera garamatza, eta baita merkatuak ematen dituen pausoetara egokitzea ere”.

JABIER RETEGI

DV

(2000.11.13)



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Internetekin lotutako enpresak

MCC eta Eusko Jaurlaritzak *e-gune* izeneko proiektua lantzen ari dira, Internetekin lotutako enpresak sortzeko. Saiolan eta Danka dabilta proiektuaren nondik norakoak lantzen. Beste bazkiderik ere izan daiteke, multinazionalak kasu.

Oraindik proiektua mahaian dago, baina politikari itxura hartzen dabil. Elektronikarekin eta Internetekin zerikusirik duen gune bat izan nahi du *e-gunek*, teknologia berri horiekin zerikusirik duten enpresak gutxi daude-eta Euskal Herrian.

Azken urteotan hainbat hitzarmen egin dituzte MCCk eta Eusko Jaurlaritzak. Eta hasi dira dirua jartzen: bien



artean bi mila milioi pezeta inguru. Erakunde biak prest daude diru horretatik kopuru jakin bat *e-gunen* inbertitzeko, proiektu berriak bultzatzeko.

*e-guner*en diseinua Saiolan eta Danka egiten ari dira. Saiolanek esperientzia luzea du enpresa proiektuak bul-

tzatzen. Danka, berriz, bazkide teknologikoa izango da eta proiektu berriei gidaritza teknologikoa eskainiko die. Baina, badirudi harremanetan daudela hainbat enpresarekin, Ericsson, Panda eta Euskaltel tartean.

Hilabete barru kalean egon daiteke *e-gune*.

Fagorrek aurkitu ditu biltegi berriak

Fagorrek 2.500 m² eskuratu ditu Gasteizko Jundizko industrialdean, eta beste 6.000 m² Mondragoeko Trefasan. Bertara eramango dira orain Garagartzan eta San Andresen egiten diren etxekotresnak. Geiserren egiten direnak, berriz, Basaurira eramango dira, eta Oñatin egiten direnak Oñatin gordeko dira.

Langile gehienak Jundizera joango dira. Beste batzuk hona etorriko dira.

Gogoratuko duzue, joan den asteazken gauean Fagorreko biltegi bat erre zen Gasteizen. Zorionez, lanean zeuden 35 langileak onik atera ziren, baina 50.000 metro koadro guttiz kiskalita geratu ziren. Fagor enpresaren arabera, kalteak hamar mila milioi pezeta inguru-koak izan daitezke.

MCC-RI ERASOAK

Kooperatiben inguruan berba egiten jarraituz, Euskal



Hamar mila milioi pezetako kalteak izan dituzte Fagorren biltegian.

Herriko enpresen aurkako erasoak agertzen hasi dira Interneten. Hauen artean, MCCren aurkako hainbat idatzi azaldu dira.

Esaten duenez, MCC da ETA babesten duen enpresarik handiena, eta dio MCC garatu den lekuetan EHk eta ETAK jarraitzaile asko dituela; horren harira, testuak dio Eroski, Consum, Fagor edo Edesaren produkturen bat erosis gero, ETA lagundu eta

finantzatzen dela. Aipatutako langile gehienak, gainera, EHren boto emaileak direla ere esaten da. Idatzi horrez gain, kooperatibak erasoak jasan ditu Burgos, Errioxa eta Araba aldean.

MCCko zuzendaritza kezkatuta dago eta eraso hauen aurrean zer egin aztertzen ari dira. Ordezkarien esanetan, euskalduna den edozeren aurkako difamazio kanpainan baten aurrean gaude.

Lastertasuna moteltzeko bandak

Bestelako auzo batzuetan gertatu diren zorigaitzoko istripuren bat izan aurretik, Garagartzako auzokideek erabaki dute lastertasuna murrizteko bandak eskatzea herriko udalari.

Jose Mari Etxagibel Garagartzako auzo alkateak jakinarazi digunez, auzoko plazara sartzeko errepidea zuzenzuzena da eta jendeak abia da dezentea hartu ohi du automobilarekin. Kontuan hartuta errepidearen albo bietako etxebizitzetan umeak bizi direla, egokia iruditu zaie auzotarrei ume hauen segurtasuna babestea. Horixe izan da, bereziki, udalari egindako eskaeraren arrazoi nagusia.

Udalak, berriz, onartu egin du eskatutakoa. 300.000 pezeta inguruko aurrekontua egokitu zaio egitasmoari eta oraingoz, behintzat, bi banda jarzteak erabaki du; Eroskikoan antzekoak, baina plastikozkoak. Bat sarreran jarriko da, eta bestea, irteeran. Nahikoa ez bada, udalak gehiago jarriko ditu.

Ume parkeak konpontzen

Uribe, Garagartzeta eta Cordoba y Oro auzoetako umeendako parkeetan lanak egingo ditu udalak. Hain zuzen ere, segurtasun zoru ipiniko da hiruretan.

Oraindik lanak ez dira adjudikatu, baina dagoeneko Arrasateko Udalak onartu du ia 2'5 milioi pezetako inbertsioa egitea.

Debagoieneko Industrialdea

Sprilur erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak industrialde bateratua egiteko proposamena egin diete Debagoieneko udalei. Aretxabaleta eta Arrasateko udalek dagoieneko onartu dute proposamena eta Oñatiko eta Bergarako udalek berehala onartuko dute. Onespen horrekin, industrialde bateratuaren bultzatzaileak lanean hasiko dira.

Industriagune horrek aukera berriak eskainiko ditu: adibidez, Arrasateko enpresa batek herrian ez badauka hedatzeko aukerarik, bailarako beste industrialde batean aurki dezake lekua. Dena dela, oraindik, industrialde bateratuak itxaron egin beharko du.

Museoa Uribarrin

Arrasaten egin nahi den industria museoa Garaia Berrikuntza Gunean jartzea proposatu da, Uribarrin. Horrez gain, datorren urteko aurrekontuetako diru kopuru bat hartu nahi da teknikari bi kontratazeko, proiektu horren inguruan lan egin dezaten. Horietako batek liburu bat idatziko luke, Mondragoeko industriaren historiaren gainean.

Edozelan ere, Garaia egin aurretik urte batzuk igaroko dira eta gauzak prestatzen joateko, erakusketa bat egingo da las-ter, museoaren nondik norakoak agertuz. Erakusketa Cerrajeran egingo da eta hainbat material erakutsiko da: Cerrajerakoa, IFAMEkoa eta baita Bixente Barandiaran errementariak erabilitakoa. Dena dela, oraindik ez dago egun zehatzik erakusketa egiteko.

Kartzela zigorra solidarioei

Arrasateko hamar lagunek epaiketa izan zuten atzo Donostiako Auzitegi Prohibitzailean. Fiskalak urtebeteko kartzela zigorra eskatzen du eurendako.

Kontua da, urtarrilaren 5ean Mondragoeko hamar solidarioek bidea moztu zutela Kataideko zubi azpian, bertan kateatuz.

Euskal presoak Euskal Herriratzea, zigorraren 3/4ak beteta dituztenak aske uztea, eta gaixotasun sendaezina dutenak aske uztea eskatu zuten solidarioek ekintza horrekin.

Ertzaintzak parte hartzaileak identifikatu eta kale istiluak sortu izana egotzi zien.



Presoen egoera gero eta okerragoa dela salatu zuten prentsaurrekoan.

SALAKETA

Asteazkenean egoera salatze-ko prentsaurreko bat eman zuten solidarioek. Modu bake-tsuan protestatzearen, kartzela zigorra jaso beharra salatu zuten osoko bilkura aretoan;

baita presoen egoera gero eta okerragoa dela eta alderdi politikoak gero eta gutxiago inplikatzeko direla. Era berean, legea bete dezatela eskatzeko mota horretako ekintzak egiteko dei egin zioten gizarteari.

Euskal Y-aren aurkako salaketa

Euskal Y-ak ingurumenean eragingo duen kaltea aztertze-ko aitortpen bat egin zuen Madrilgo gobernuak eta kaltea larregikoa ez delakoan, proiektuan aurrera segitzeko baimena eman zuen. Mondragoeko hainbat talde, ordea, ez daude batere ados baieztapen horrekin eta prentsaurrekoa eman zuten euren ikuspuntua azaltzeko.

Parte hartzaile moduan hauek egon ziren: EH eta EB alderdi politikoak, ESK eta EHNE sindikatuak, Besaide mendi taldea eta Ekologistak Martxan eta LHTren aurkako taldea. Baita Euskal Y-ak kaltetzen dituen lurjabe batzuk ere.

ERASO BORTITZA

Besteak beste, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Aitorpena iruzur hutsa dela salatu zuten eta Euskal Y-koaren barruan sartuta dau-



Asteartean izan zen prentsaurrekoa Besaideko egoitzan.

den bi proiektuak gure bailaran ia paraleloan doazenez (Lastertasun Handiko Trena eta Eibar-Gasteiz autobidea), zonalde ugari kaltetuko dituela: Udalatxeko parke naturala, adibidez.

Bailarako nekazariak ere ez daude pozik, baseritik bizitzeko eta kalitatezko produktuak ekoizteko beharrezkoa duten lurra kenduko dielako

Euskal Y-ak.

Gaineratu zuten proiektu horren onurak eta kalteak parekatuz gero, kalteak askoz ere handiagoak direla: "10-20 bat minutu aurreratzearen, gure bailara gehiena apurtu egingo dute".

Horrekin batera, egin beharreko izugarriko inbertsioa ere salatu da: ia 500.000 milioi pezeta, hasteko.



YLLANA eta
SEX PEARE produkzioak
aurkeztuta

HIP

PO



SANTIAGO
MOLERO

DAVID
TENREIRO

RULO
PARDO



Amaia Antzokian

Azaroaren 19an (igandea)

Arratsaldeko 19:30etan

Sarrera: 1.000 PTA.

Gazte Txartela: 800 PTA:



ARRASATEKO UDALA Kultura Salla ■



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan



Abendutik aurrera, zure eskura.



IKUSMIN HANDIA

Bisitaldi bolada izan dugu Arrasate Irratian, Arrasate Pressen eta GOITBn. Eguenean Durangoko Kurutziaga Ikastolako 6. mailakoak izan genituen. Egubakoitzean Txatxilipurdiren Gazte Txoko aisialdi taldekoak etorri ziren Arrasate Irratia ikustera. Guztiak formal-formal ibili ziren, hori bai.



BI ZORO TA... UGA


Eta bisitekin jarraituz, beste bat izan zen egubakoitzean Arrasate Irratian, ezaguna hau: Uga abeslaria. *Bi Zoro ta Zu*

irratsaiokoek elkarrizketatu zuten. Elkarrizketa gorabeheratsua, gainera, erdi-erdian itzualdia izan zuten eta...

BADATORRELA TABERNARIA, BADATORRELA...



Abenduan zabalduko du Izaskun Murgia Lirika Elkarteak "portuko taberna", Arrasaten inoiz izan den tabernaririk musikazaleen eskutik... Begira nola dabilzan, Amaia antzokian, bere etorrera prestatzen!



Ferrerías. 943 79 87 62

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel.: 943 79 48 77 ▪ ARRASATE



- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 ▪ Tel.: 943 79 52 50

IZENAK

Arantza Berezibar Galdos

arrasatearra da San Viator Ikastolako zuzendari berria. Aste honen hartu du Itsaso Nuinen orde, zuzendaritza orokorra. 12 urtez San Viatorreko irakasle izana da Arantza, eta Ingeles eta Gizarte eskolako eman izan ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

1998tik aurtengo irailera arte, San Viatorreko Lehen Hezkuntzako zuzendari izan da. Erronka handiago bati aurre egingo dio Arantzak hemendik aurrera.



PERRETXIKOZALE FIN-FINAK

Ainhua eta Lur Delgado Llodio ahizpak perretxiko bila joan ziren Arabara, eta Legution aurkitutako hiru


buruko perretxiko horrekin bueltatu dira. Nahaski ederra egin ahal izango dute, bai horixe!

EUSKARAZ ETA EURIZ BLAI

Autobus bete lagun joan zen Arrasatetik Lizarrara, AEKeguna ospatzera. Ikusten den bezala, eguraldia ez zuten lagun izan, baina irribarrea ez zitzaien behintzat musutik ezabatu.



ZORIONAK, MARC!



Azaroaren 15ean, joan den eguaztenean, 7 urte bete zituen Marc Arregi izeneko aingerutxo honek. Atzerapen pittin batekin, baina zorion bero-beroak opa dizkiogu geuk ere!




Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaintza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768



OKENDO
KIROLAK

Maalako errebala, 13
Tel.: 943 79 92 76

Herri autobusa, kalean g

Mondragoeko herri autobusa ez da ez telebistako "Busaren" modukoa; baina, hori bai, telebistakoak baino zerbitzu askoz hobea ematen die herritarrei.

Horixe da, behintzat, gehienen iritzia: "Oso ondo dago herri autobusa... aspalditik egon beharko litzateke. Niri izugarri errazten dit etxera edo kalera joatea".

te denak antzera erabiltzen dira.

GOMENDIOAK

Herri autobusa hartzeak ez du bestelako misteriorik, baina, badaezpada, aholku batzuk emango ditugu.

ADIBIDEZ:

- Autobusaren zain egotean, gidariari geratzeko seinalea egitea komeni da; izan ere, batzuetan pentsa dezake pertsona hori ez dagoela autobusaren zain.
- Geratzeko abisua beti geraldetik egin, ez kanpotik.
- Autobus barrukoendako ere komenigarria da txirrina jotzea gidariari geralekuak zein den esateko.
- Geralekuak ez diren tokietan autobusa ez da geratuko, larrialdiren bat ez bada go behintzat.
- Berez, bidaiak 100 pezeta balio du; bonuarekin, 75.
- Lehenengo bonua erosteko gutxieneko kopurua 2.500 pezetakoa da. Ondoren, 500-1.000 pezetaka gehitu ahal izango da.
- Bonuarekin ordaintzeko, autobuseko makinatik 1-10 zm.ra pasatu behar da txartela. Ondoren, zaratatxo bat entzungo da eta horrek esan nahi du makinak deskontatu duela bidaia hori; orduan, aurrera!
- Zaratatxoa atera barik etengabeko txistua ateratzen badu, horrek esan nahi du txartela diru barik dagoela, edo matxuratuta. Orduan, berri kargatu beharko da, eta matxuratuta badago, Leintz Garraioak enpresaren bulegoetara eraman behar da.



Pasa den irailean egin zen autobus berriaren aurkezpena.

Bi hilabete dira Mondragoen herri autobusa estreinatu zela eta badirudi betidanik egon dela geurean. Oraindik badago inoiz igo ez den jendea, baina erabili dutenek ondo asko dakite zein den aldea.

Datu batzuk ematearren, bi hilabete hauetan (iraila-urria) 3.200 pertsonak erabili du astero autobusa. Guztira, 307 bonu saldu dira eta Domu Santu egunean, adibidez, zenbait geltokitan geratu ere ez zen egin, autobusean ez zelako jende gehiago kabitzen.

Autobusaren kudeaketaz arduratzen den Leintz Garraioak enpresa pozik dago orain arte lortutako emaitzekin.

Horixe adierazi digu kudeatzaileak, Angel Marcoc:

"Aurreikusitako datuak gaintitu ditugu dagoeneko. Batez bestekoa ateraz gero, 150.000-160.000 bidaiari izango ditugu urtero; bidaiari kopuru hau hemendik lau urtera lortzea espero zen. Beraz, esan daiteke, helburuak lortzeaz gain, gaintitu ere egin ditugula. Nik neuk, behintzat, oso balorazio ona egiten dut".

ERABILTZAILEAK

Orain arte autobusa gehien erabili dutenak pertsona nagusiak dira, ondoren emakumeak eta gero gazteak. Gutxienez erabiltzen dutenak, berriz, 25-50 urtera arteko gizonezkoak dira. Horren harira, jakinarazi behar da 6 urtetik beherako hau-

rendako bidaia doakoa dela; "jeneralean, 4 urtetik beherakoendako izaten da doan, baina hemen 6 urtetik beherakoendako jarri dugu".

ESKAKIZUNAK

Erabiltzaile hauek zera eskatzen dute: autobusak, gaueko 22:00etatik aurrera, beste bira bat ematea. "Dena dela, gure ustez, ordutegia nahiko zabalada. Hala ere, herritarrek mota horretako eskaerak eginez gero, aztertu egin beharko dira, urrian jarritako geraleku berriei egin genuen moduan".

Geralekuei buruz hitz egin ten hasita, gehien erabiltzen direnak hauek dira: Eroski, San Frantzisko Xabier, Joan Bengoa eta San Andres. Bes-

gra kalean behera

BONUAK

Plastikozko txartelak dira, eta barruan mikrotxip bat dute. Mikrotxip horrek txartelari buruzko informazioa jasotzen du: zenbat diru dagoen, zenbat gastatu den... Gainera, datorren ikasturteetik aurrera bonu berriak aterako ditu Arrasateko Udalak, laguntza behar duen jendearentzat. Bi motakoak izango dira: batek 2.500 pezeta izango du laguntza moduan eta besteak, 1.000. Udalaren gizarte zerbitzuek ezarritako baldintzak betez gero eskuratu ahal izango dira bonu hauek. Hain zuzen ere, zaborretan edo kiroldegiko zergetan ezartzen diren baldintza berberak bete behar dira.

“Argi geratu behar da bonuak pertsonalak direla. Jende askok ez du ulertzen zergatik ezin den familia bakoitzarentzat bonu bakarra egin eta familiako kide guztiek erabili. Ulertu behar da istripu bat izanez gero bonua dela autobus-bidaia ordaindu izanaren ziurtagiria; bonu barik ezin da justifikatu bidaia bat. Eta ezin bada justifikatu, ezin izango da ezer erreklamatu aseguru-etxean.

EROSKIRA

Eroskirako autobusa ordezkatu du herri autobusak. Horren ondorioz, orain, Eroskira joateko ordutegia askoz ere zabalagoa da: 10:00etatik 21:00ak arte.

Oraingo zerbitzua, lehenagoa moduan, doakoa da. Baina, badago jarraitu beharreko prozesu bat: Eroskira heldu eta autobusetik jaitsi baino lehen, garraio txartela eskatu behar

zaio gidariari. Ondoren, Eroskin egindako erosketak ordaintzerakoan, garraio txartela kutxazainari eman eta harek 150 pezeta kenduko ditu erosketaren zenbatekotik.

Kontuan hartu behar da, hori bai, kutxako kontu bakoitzean garraio txartel baten zenbatekoa sartuko dela; beraz, bidaia guztiak doan izateko, erosketa kontu kopurua eta garraio txartel kopurua berdina izan behar da.

NONDIK NORA?

Geraleku guztietan agertzen da linea horrek egiten duen ibilbidea; beraz, jendeak hori erabiltzen du erreferentzia gisa. Hori bai, geralekuetan ez da azaltzen zein linea erabili behar den toki zehatz batera joateko. Kasu horretan, gidariari galdetuz gero, harek emango ditu beharrezko azalpen guztiak. Eta bestela, ondorengo laukian begiratzea besterik ez dago.

GARAGARTZA ETA OSPITALEAK

Oraingoz, autobusa herrigunean dabil eta ez da joaten baserri-auzoetara. Dena dela, hasi dira aukera berriak aztertzen: “Garagartza-Gesalibar ingurura joateko aukera aztertzen ari gara orain. Dena dela, azken erabakia udalak hartu beharko du jendearen beharren eta presioen arabera”. ■

Ubane Madera

		Eroski	Musakola	Legarre	Ospitalea	Garibai	San Andres	Arima Zuri	Alecop	Uribarri	Erguin	Gorostiza	Zarugalde	Muxibar	San Frantzisko	JL Inarra	Makatzena	Obenerreka	Cristo Obrero	Galizia - S. Teresa	Joan Bengoa	Biteri/Maala	
Eroski		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Musakola	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Legarre	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Ospitalea	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Garibai	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
San Andres	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Arima Zuri	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Alecop	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Uribarri	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Erguin	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Gorostiza	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Zarugalde	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Muxibar	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
San Frantzisko	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2	2
JL Inarra	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2	2
Makatzena	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2	2
Obenerreka	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2	2
Cristo Obrero	2	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2	2
Galizia - S. Teresa	2	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2	2
Joan Bengoa	2	2	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		2	2	2
Biteri/Maala	1	1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

- 1 1 linea erabili behar da. 1 1 linea hobesten da, baina biak erabil daitezke.
- 2 2 linea erabili behar da. 2 2 linea hobesten da, baina biak erabil daitezke. = biak berdin.

Goiako 7:00etatik gaueko 10:00ak arte (larunbatetan eta jaiegunetan izan ezik).

IZABELLA ROHLFS (LAN OSASUNEAN ADITUA)

“Gizonek baino gaitz kronikoak gehiago dituzte emakumeek berak ere ez dituzten gaixotasun bezala hartzen, ondorez soil bezala baizik.”

Gironako Centro de Analisis y Programacion Sanitaria delakoan dihardu Izabella Rohlfsek lan-osasun aditu bezala, orain dela 10 urtetik. “Emakumea, Osasuna eta Bizi Kalitatea” izeneko programa ari da aurrera ateratzen orain. ESK eta STEE-EILAS sindikatuen eskutik, Genero desberdintasunak lan-osasunean hitzaldia eman zuen Arrasaten joan den astean.

— “Genero” hitza erabiltzen da sexuaren araberako desberdintasunetaz aritzeko.

— Generoaz ari garenean, gure portaeren, itxuraren eta bizitza profesionalaren eta lan aukeren egokitze neurriaren gaineko arauetaz ari gara. Estereotipoek edo lanaren sexuaren araberako banaketak eragindako giza desberdintasunetaz ari gara. Desberdintasun berbarekin, bidezko ez diren eta saihestu behar diren egoerak izendatu nahi ditut.

— Zelan eragiten du

horrek lanean?

— Lan-arloa genero desberdintasunek eragindakoa da. Emakumeek soldata baxuagoak ditugu, lan-hierarkian ardurako postu gutxiago ditugu eta gizonezkoena baino askoz altuagoa da gure langabezia tasa. Batik bat zerbitzuen arloan, emakumeon lanpostuak gutxi baloratzen dira eta gaizki ordainduta daude. Aukera profesionalak askoz urriagoak dira. Eta horrek guztiak osasunean ere eragiten du.

— Askotan esaten da, baina, emakumeek bizi itxaropen luzeagoa dugula.

— Paradoxa bat dago emakumearen bizi itxaropen eta bizi kalitatearen artean. Lan-baldintzak direla-eta, luzeago bizi gara, bai, baina gizonek baino gaitz kroniko gehiago, eta etxeko lanetan erantzukizun banaketa ezak eragindako zama jasaten ditugu. Gaixotasun kroniko horiek, sarritan, ez dute berez heriotza ekartzen, eta horregatik,

emakumeak berak ere ez dituzten gaixotasun bezala hartzen, ondorez soil bezala baizik.


— Edo estres bezala...

— Bai, baina estresari errua botatzea tranpa da. Gaur egun, makina bat gaitzi estresaren etiketa ipintzen diogu, eta gaixotasun horren adierazpen psikosomatikoak -estuasuna, depresioa edo neke kronikoa, esaterako- botik bidez, behar baino gehiagotan tratatzen dira.

— Gaitz horiek nori eragin diezaiokete errazago: etxean ala etxetik kanpo lan egiten duen emakume bati?

— Gure ikerketen arabera, kanpoan lan egiten dutenek, oro har, etxean baino jarduten ez dutenek baino osasun hobea dute.

Baina, emaitza horiek euren testuingurua ulertu behar dira. Emaitza



“Gaixotasun kroniko horiek ez dute berez heriotza ekartzen, eta horregatik, ondorez bezala hartzen dira”

oniko gehiago ditugu”

tzok giza klase bakar baten barruan ikusten baditugu, egia da esan duguna, baina, alde batetik goi klaseko etxeoandre bat hartzen badugu, horrek dakartzan abantaila ekonomiko eta sozial guztiakin, eta bestetik emakume langile bat, katean jarduten duena eta etxera bueltatzean lanean jarraitu beharra duena, orduan langileak etxeoandreak baino osasun txarragoa izango du.

— Beraz, azkenean zerk baldintzatzen du emakumearen ongizatea?

— Bi baldintza daude:

egoera ekonomikoa eta lanaldi bikoitzari aurre egiteko emakumeak izango dituen baliabideak. Hala ere, desberdintasun nabarmen bat dago: ordaindutako lan bat egiten duen emakumeari asko eragiten dio zenbaterainoko “zama familiarak” dituen; baina, gizonei ez die zama horrek osasunerako kalterik eragiten.

— Batzuek esaten dute ordaindutako lan-mundura sar-tzeak onura baino kalte gehiago ekarri diola emakumeari, eta etxeko lanak bakarrik hartu beharko litzukeela.

— Ez nago ados: zaintzea eta garbitzea ez dira gure berezko jarrerak. Eta batzuei lan horiek ez diete batere pozik ekartzen. Baina, lan horiek ongizatearendako duten pisua onartu beharko litzateke. Beraz, norberak gustuko duen jarduera aukeratzeko ahalmena da niretzat inportanteena. Etxeko lanen erantzukizuna banatzearen garrantzia gizar-tearendako argi ez dagoen artean, “etxera itzultze” hori lanaren sexuaren araberako banaketaren bidegabekeria betiko luzatzea izango litzateke. Gune pribatuan itxita geratuko litz-

teke emakumea, gune publikoetatik kanpo.

— Eskakizun kolektiboaren bidez lortuko ote da konponbiderik? Norberak badu zer egin eta zer eskatu?

— Gure inguru gertuenera mugatzen garen neurrian, eta gizartean parte hartzen ez dugun neurrian, ez da berdintasunik egongo. Ez dugu behar bezalako presentzia lortuko. Nor bere eskubideak aldarrikatzeko egiten ditugun ekin-tzek euren garrantzia dute, baina gizabanakoen bat-egitea eragingorrena da. ■

Badator, badator.

Gida 2001 prestatzen ari gara. Idoia eta Miriam gaituzue.



Gida 2001, zure etorkizunean.

GIDA 2001

Laster zure taberna, denda edo lantegira joango gara.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako merkatarien telefono eta helbideak jasoko ditugu GIDA 2001ean.

ARKOren gidan azaldu edo berri gehiago jaso nahi baduzu, deitu ARKOra (943 71 23 91).

ARKO

Arrasate Komunikabideak

Hasiera bikaina izan zuen txapelketak

Zaldibarko areto futbol txapelketa bikain hasi da. Aurreikusitako partida guztiak jokatuz iren eta futboleant ez bezala, Zaldibarko jokalariek golak

sartzen badakitela erakutsi zuten. Adibidez, bost partidatan hamabosna gol sartu zituzten: YK Azkena-Goma 2, Komando Alpargat-Betrayer,

New Makai-Etxerat Taberna, IKP-AC Surkos eta Serengeti-Lasabaster partidetan gertatu zen hori. Iazko txapelduan, beraz, gogor hasi dute

txapelketa eta titulua defendatzeko beharrezko guztiak jarriko dituztela erakutsi zuten; 15 gol sartu zizkieten New Makai taldekoei.



Emaitzak

A taldea

YK Azkena 2 - Goma 2 11
Komando Alpargat 9 - Betrayer 7
Leya 6 - Katxiporra 2
IKP 5 - AC Surkos 12
Txeyenex 1 - Dribling 7
AL Ion 4 - Bikain Akademia 6
The Pippol 3 - Kan. Harrobia 5
Serengeti 4 - Lasagabaster 10
Makanaki FC 1 - Aurrera Bolie 2

B taldea

Sas T 0 - Txotx 3
New Makai 1 - Etxerat Taberna 15
Ondakinak 3 - Katxiporra 1
Alai Gozokiak 1 - Koka Jr Basati 6
Rayo Aldeano 2 - Irati STS 8
EPEH 6 - Abocajarro 4
AT Celaya 1 - Fraguél Gol 3
Full Duplex 3 - Kamasutra 2
Pepelus 5 - AKTA 1

Aldaketak

Bi dira aipatu beharreko aldaketak. Lehenengoak talde guztietan du eragina: Iturripen jokatu beharreko norgehiagoken ordu-tegia aldatu egin da; hemendik aurrera han jokatu beharreko norgehiagokak 14:50ean hasiko dira.

Bigarren aldaketa: bi taldek izena aldatu dute bigarren jardunaldirako. Ondakinak taldea hemendik aurrera "Ondakinak Iriztu" izango da; Pepelus taldea, berriz, "Pepelus.insero.com" izango da.

Zigorak

Lehenengo aldiko jardunaldietan epailea txapelketa jokatzen ari diren taldeetako ordezkariak izango dira. Hori dela eta, kale egiten duen taldeak bi puntu gutxiago izango ditu sailkapen orokorrean eta berme bezala aurreratutako 8.000 pezetak galduko ditu. Baina, konpromisoa behar bezala bete beharko da; hau da, epaile lanak gaizki eginez gero, taldeak zigorra jasoko du. Beraz, ez alde ez eta kontra ere, ezingo da epaitu.

Zigor gogorragoak ere badaude. Partida jokatzerako joaten ez den taldea, esaterako, txapelketatik kanporatuko dute eta bere aurkariak eskuratuko ditu puntuak.

2. jardunaldia

azaroak 18, larunbata

Zaldibar

Ordua	Partida	Epailea
08:50	Abocajarro - Fraguél Gol	(Txeyenex)
10:00	Txeyenex - Kanpanzar Harrobia	(Abocajarro)
11:00	Rayo Aldeano - Etxerat Taberna	(Kanp. Harrobia)
12:00	Irati STS - DKB Kobate	(Etxerat Taberna)
13:00	AT Celaya - Koka Juniors	(Irati STS)
14:00	The Pippol - Katxiporra	(AT Celaya)
15:00	IKP - Goma 2	(The Pippol)
16:00	Dribling - Betrayer	(IKP)
17:00	AL Ion - Aurrera Bolie	(Dribling)
18:00	Full Duplex - AKTA	(AL Ion)
19:00	Serengeti - AC Surkos	(Full Duplex)

Iturripe A

14:50	Makanaki FC - YK Azkena	(Bikain Akademia)
16:00	Leya - Bikain Akademia	(Makanaki)

Iturripe B

14:50	Ondakinak Iriztu - Txotx	(Sas T)
16:00	Sas T - Kamasutra	(Ondakinak Iriztu)

azaroak 19, igandea

Zaldibar

10:50	EPEH - New Makai	(Pepelus.insero.com)
12:00	Pepelus.insero.com - Usotz Potroak	(New makai)
13:00	Komando Alpargat - Lasagabaster	(Usotz Potroak)

Atsedena: Alai Gozokiak


Iturripeko partidak 14:50ean hasiko dira



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Nissan Primera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila: aldibielgoibar@nortekar.com



Teknifikazio saioak adin batetik aurrera

Eskola kirolaren baitan, maila batek aurrera, kirol helburuak nabarmentzen hasten dira eta hainbat kirol espezialitatean trebatzeko aukera izaten dute ikasleek. Horren barruan sar ditzakegu Foru Aldundiak hainbat federazioarekin elkarlanean aurkeztu dituen teknifikazio programak. Hauen baitan, bai saskibaloian eta baita futbolean ere, saio bereziak prestatu dira kirol hauetan urte osoan zehar lan berezia egiteko.

👉 SASKIBALOIA

Saskibaloiko programa DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei, hots, infantilei, zuzendua dago. Eta saio profesionalak dira! Estatu mailako entrenatzaile titulua duen entrenatzaile batekin aritzen dira saskibaloiko saio bereziak jasotzen. Teknifikazio programa hau Debagoieneko herri guztietako ikasleei zabaldua dago.

👉 NESKAK ETA MUTILAK

Saio hauek martitzenero izaten dira Iturripeko kiroldegian, 19:00etatik 20:00etara.



Asteartero saskibaloian aritzen dira Iturripen.

Neskak eta mutilak aritzen dira; aste batean neskek eta mutilak beste batean.

👉 FUTBOLA

Futboleko teknifikazio programa herri mailakoa da eta Arrasate Kirol Proiektuan dabilen alebin mailako bigarren urteko ikasleei zuzendua dago, hau da, 1989. urtean jaiotakoei. Foru aldundiak bul-

tzatutako programa hau Mondragon CFko arduradunek daramate aurrera, egubakoitzero, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara, Atxabalpeko futbol zelaietan. Bertan elkartzeko diren ikasle guztiekin hainbat entrenamendu saio egiten dituzte.

Aipatu beharra dago programa hauek ez dutela partidarik aurreikusten, bateren bat jokatzeko posible den arren.

Mendi irteera

Domekan, hilak 19, beste mendi irteera bat egingo dute AKPko lagunek. Oraingoan, Durangaldera joango dira: Atxartetik irten, Anbotosteko gainera igo, eta Oletara jaitsiko dira. Garibaitik irtengo dira 08:30ean, eta eguerdian itzuliko dira etxera.

Asteburuko hitzorduak

Azaroak 18, larunbata

AURREKIROLA

👉 MINIESKUBALOIA

Iturripen

- 09:30** SFX U - SFX E
Musakola - SFX A
- 10:15** SFX C - SFX B
Aramaio - S. Viator B
- 11:00** Erguin - SFX D
- 11:45** SFX S.T. - La Merced B
- 12:30** La Merced A - S. Viator A

MULTIKIROLA

👉 MINISASKIBALOIA

Musakolan

- NESKAK**
- 10:00** SFX U - La Merced
- 12:15** Erguin - SFX A
- MUTILAK**
- 10:45** SFX A - Erguin
San Viator B - SFX U
- 11:30** La Merced - S. Viator A
- 12:15** SFX B - Aramaio

👉 SASKIBALOIA

Autobusa, Garibaien

- NESKAK**
- Almenen
- 10:00** Torrebaso - SFX
San Viator
- 10:00** S. Viator A - S. Viator B
- MUTILAK**
- Zubikoan
- 09:15** Txantxi DBH 2am - SFX
S. Viator Haundin
- 11:00** San Viator - Aozaratza 2B

👉 FUTBOLA

Autobusa, Garibaien

- NESKAK**
- Atxabalpen
- 09:30** Arrasate - Txantxi 1A
- 09:30** La Merced - SFX
- MUTILAK**
- Musakolan
- 11:00** La Merced - Txantxi 1A

SASKIBALOIA "Lapurreta"


 Kenci Arrasate taldekoek diote jokaturako azken partida "lapurru" egin zietela. Leioako Askartzaren aurka jokatu zuten eta jakinarazi digutenez, entrenatzaile leioarrak zera adierazi zien: "inoiz lortu dudan garaipenik tristeena da; benetan lotsa sentitzen dut gaur ikusi dudan lapurretaren ondoren".

Leioarrek hobeto jokatu zuten arren epaileek hartutako erabakiek mesede egin zieten, batez ere hirugarren laurdenean. Azken emaitza: 84-79.

Larunbatean Profusa-Indautxuren aurka jokaturiko dute Sondikan.

taldea hasieratik izan zen nagusi Iturripen eta Elgoibarrek baino joko hobea erakutsi zuen. Lehenengo zatia lau goleko aldearekin bukatu zuten etxekoek. Partida dotorea jokatu zuten eta atezainak ere lan bikaina egin zuen. Azken emaitza: 31-22. Asteburuan Ormaiztegin jokaturiko dute. Gazte mailakoek jai izango dute eta kadeteek Eskoriatzan jokaturiko dute Almenen aurka.


XAKEA Guztiek, kale



San Andres xake taldeko lau taldeek kale egin zuten asteburuan jokaturiko neurketetan.

Hiruk galdu eta batek berdindu egin zuten. Gipuzkoako ligan ari diren bi taldeen artean 3 puntu lortu zituzten; Arrasate B Al Andalusen aritu zen Eibarko lehen taldearen aurka eta berdindu egin zuten. Maila berean dabilen Arrasate A laukoteak ezin izan zion Gros Dri irabazi. 3 eta 1 galdu zuen.

Jonathan Perez Realak fitxatu du



Jonathanek 4,30 m.ko jauzia egiten du.

Pertika jauzilari arrasatearra fitxatu du Realak. Joan den astean Iturripen izan ziren Donostiako taldeko lehendakaria eta zuzendari teknikoa. Aspaldian ari ziren txuri-urdirak Jonathan Donostiara eraman nahian, baina Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko entrenatzaileak itxaron egin du eta Jonathanek lana hobetzeko astia izan du.


Iaz ere Realak eskaini zion Jonathani txuri-urdira izatea eta EHU taldeak ere Arrasateko joateko aukera eman zion. Aurtengo Gasteizko Avia taldeak ere egin dio eskaintzarik eta donos-

tiarrena onartzea erabaki du.

Hemeretzi urte ditu eta azaldu digunez, "aurtengo helburua 4,30 m. tik 4,70 m. ra igotzea da".

Espainiako txapelketaren ondoren hilabeteko atsedenaldia hartu du Jonathanek. Datorren astean Donostiara joango da entrenatzera. Astean behin edo birritan joango da hasieran, eta beharrezkoa denean, gehiagotan joango da. Real Espainiako lehen mailan ari da eta bina kirolari aritzen da espezialitateko. Bizkaitar batekin arituko da Jonathan, promes mailan.

ESKUBALOIA Lehen garaipena



Iritsi da, bai, horrenbeste bilatu duten garaipena. Denboraldiko zortzigarren denboraldian izan da, baina hobe horrela sekula baino. Arrasate Almen

Emaitzak

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** K. Arrasate 84 - Leioa 79.
- **Kadete neskek:** Alde Zaharra 68 - K. Arrasate 37
- **Juniorrak:** K. Arrasate 89 - Irurok Aloña Mendi 64

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Tolosaldea 3 - Mondra 0
- **Lehen mailako gazteak:** Mondra 1 - Idiazabal 1
- **Bigarren mailako gazteak:** Arrasate 5 - Eibartarrak 1
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate 3 - Añorga 0
- **Bigarren mailako kadeteak:** Aretxabaleta 3 -

Arrasate 3

- **Ohorezko infantilak:** Arrasate 3 - Lagun Onak 0
- **Lehen erregionalen neskek:** Urkiak 1 - Mondra 1

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:** Arrasate Almen 31 - Elgoibar 22
- **Gazteak:** Urola 25 - Arrasate 24
- **Kadeteak:** Legazpi 19 - Arrasate 19
- **Kadeteak:** Arrasate 18 - Elgoibar 19

PILOTA

- **2. mailako kadeteak:** Arrasate 22 - Donotia 14
- **1. mailako kadeteak:**

Arrasate 12 - Beasain 22

- **1. mailako gazteak:** Arrasate 22 - Hernani 15
- **2. mailako afizionatuak:** Arrasate 16 - Amezketa 22

XAKEA

- **Gipuzkoako liga:** Arrasate B 2 - Eibar A 2
- **Gros D 3 - Arrasate A 1**
- **Gipuzkoako lehen maila:** Deba A 3,5 - Arrasate C 0,5
- **Gipuzkoako 3. maila:** Arrasate D 1 - Gros N 3

Jokatzeak

SASKIBALOIA

- **Musakolan, larunbatean**
- **23 urte azpikoak:** Kenci Arrasate - Etxadi, 16:00etan.
- **Kadete neskek:** Kenci Arrasate - Internacional A, 10:15ean.

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Mondra - Ostadai larunbatean, 15:30ean
- **Bigarren mailako kadeteak:** Arrasate - Soraluze, igandean, 11:00etan

ERRUGBIA

- **Gazteak:** Arrasate - Durango larunbatean, 16:30ean

XAKEA

- **larunbatean, 16:00etan, Al Andalusen**
- **Gipuzkoako liga eta lehen maila**

Parte hartzaile gehiago Behobia-Donostian

Aurtengo maratokiaz iaz baino arrasatear gehiago egon da; izan ere, Loramendi Kirolak dendan 107 arrasatearrek eman zuen izena. Guztira, 196 lagunek eman zuen izena: 107 arrasatear, 39 atxabaltar, 6 eskoriatzar eta 44 beste herri batzuetakoak.

106 arrasatear heldu zen helmugara, beraz, ia izena eman zuten guztiak. Azkarrena Jabier Mentxaka izan zen eta 20,5 km.ak egiteko 01:10:23 denbora behar izan zuen. Bera beteranotan aritu



Joxe Mari Larrañaga helmugan harrapatu zuen Joxe Arantzabalek.

zen, baina, hala ere, arrasatear azkarrena izan zen.

Emakumeetan, azkarrena Diana Idigoras izan zen,

01:39:39ko denborarekin.

Arrasateetik joan zen korrikalaririk zaharrena Krispin Baldezate izan zen, 1936koa. 01:47:10ean egin zuen ibilbidea. Ez da ez marka makala!

Gasteenak, berriz, 1982an jaiotakoak izan ziren eta Arrasateetik hiru lagun joan ziren, baina bik bukatu zuten: Ander Ansuategik (01:31:03) eta Fernando Nogales (01:32:43), alegia. Azpian duzue Arrasateetik joandako guztien denbora eta helmuga postua.

Arrasatearrak Behobia-Donostian

Abizena-izena	Postua	Denbora	Abizena-izena	Postua	Denbora	Abizena-izena	Postua	Denbora
Mentxaka Agirreurreta Javier	70	1:10:23	Egiluz Zubia Iñaki	2.784	1:34:09	Barrutia Okaranza Luis	5.887	1:48:48
Silvar Gil Iban	103	1:11:47	Garitaonandia Antsoategi Joseba	2.817	1:34:20	Cruz Lavin Pedro	6.032	1:49:36
Aperribai Uribetxebarria Ion	104	1:11:49	Juan Llodio losu	2.884	1:34:40	Uribarren Liebana Leire	6.120	1:50:07
Ezpeleta Iturbe Zuhaitz	113	1:12:13	Axpe Uribetxebarria Urtzi	3.196	1:36:21	Zabalo Marzan Iñigo	6.175	1:50:20
Urrizalki Jauregi Eneko	253	1:16:16	Idigoras Zaitegi Unai	3.258	1:36:43	Heriz Arkauz Luis Mari	6.251	1:50:40
Mahamud Escaño Eliecer	255	1:16:19	Jauregi Bidaburu Iñaki	3.364	1:37:14	Agirreurreta Etxenagusia Iker	6.261	1:50:43
Cascon Rodriguez Jose Luis	347	1:17:43	Bergaretxe Zubizarreta Xabier	3.437	1:37:37	Balzategi Juldain Eburne	6.287	1:50:57
Ramos Romeo Ruben	379	1:18:13	Ugarte Beitia Ion	3.446	1:37:39	Berasaluzte San Pablo Jon	6.321	1:51:07
Kerejeta Lopez Unai	533	1:19:57	Ugarte Beitia Unai	3.447	1:37:40	Larrañaga Bolinga Jose Mari	6.324	1:51:07
San Jose Garcia Victor	676	1:21:33	Moreno Etxebarrieta Jesus	3.654	1:38:35	Diaz Armendariz Iban	6.328	1:51:09
Ortuoste Ibarra Jose Javier	1.092	1:25:00	Moreno Lacasa Ibon	3.749	1:39:05	Alzelai Maitezgi Ion	6.426	1:51:40
Barrutia Mendizabal Garikoitz	1.110	1:25:10	Eraña Olaskoaga Igor	3.765	1:39:10	Ansoategi Belategi Igor	6.623	1:52:45
Zuñiga Romeo Aitor	1.145	1:25:25	Idigoras Pascual Diana	3.875	1:39:39	Beltran De Guevara Berecibar Merte	6.737	1:53:15
Barrena Elorza Jesus Maria	1.250	1:26:06	Lagunilla Amozarrain Aitor	3.877	1:39:40	Sanpedro Olalde Itziar	6.927	1:54:23
Pacho Barros Jose	1.279	1:26:16	Martinez Altuna Carlos	3.999	1:40:08	Ezpeleta Irizar Joseba	6.997	1:54:45
Balzategi Muramendiaraz Iker	1.328	1:26:34	Ruiz De Azua Galdos Andoni	4.062	1:40:23	Ruiz De Azua Altuna Maria Jesus	7.004	1:54:49
Rodriguez Calvilla Jose Ignacio	1.396	1:27:02	Urrutia Zarragoa Igor	4.111	1:40:36	Mazmela Bolinaga Enrike	7.008	1:54:49
Mendialdua Axpe Xabier	1.607	1:28:10	Gil Gil M ^o Jose	4.238	1:41:13	Velez De Mendizabal Azurmendi Idoia	7.073	1:55:15
Uriarte Etxebarria Aitor	1.620	1:28:13	Murgia Uribetxebarria Juan Luis	4.261	1:41:19	Sanabria Viteri Jon	7.082	1:55:21
Martinez Perez Igor	1.656	1:28:20	Marco Loiti Alex	4.372	1:41:48	Arizmendiarieta Mondragon Iñaki	7.115	1:55:38
Larrea Beldarrain Kepa	1.669	1:28:24	Jurado Mesa Jose	4.434	1:42:06	Beltran De Guevara Berecibar Ignacio	7.281	1:56:40
Uribarren Del Val Agustin	1.698	1:28:35	Etxebeste Lopez Mikel	4.775	1:43:31	Errasti Balanzategi losu	7.380	1:57:16
Sanchez Lizarralde Aitor	1.838	1:29:17	Garai Xabier	4.858	1:43:52	Errasti Salaberri Itoitz	7.463	1:57:59
Galan Gomez Amalio	2.005	1:29:56	Arana Ibabe Oskar	5.193	1:45:21	Vitoria Moral Iban	7.642	1:59:41
Amozarrain Kortabarria Bittor	2.037	1:30:05	Agirregomezkorta Vieira Asier	5.265	1:45:44	Uriarte Garmendia Lorea	7.746	2:00:28
Aranguren Zubillaga Iban	2.164	1:30:43	Rodriguez Pinedo Alberto	5.267	1:45:45	Ezpeleta Irizar Aintzane	7.785	2:00:41
Ansoategi Oruna Ander	2.226	1:31:03	Ozaeta Mendiaratz Andoni	5.291	1:45:53	Guridi Arozena Pedro	7.786	2:00:42
Ercilla Aroma Ander	2.471	1:32:31	Arroyo Sanchez Iker	5.302	1:45:57	Altuna Idigoras Asier	7.953	2:02:22
Serrano San Julian Juanjo	2.475	1:32:33	Mendiaratz Elexporu Jesus Maria	5.338	1:46:07	Zulueta Guerrero Ainhoa	8.108	2:04:22
Zubillaga Larrotxa Jose Daniel	2.478	1:32:34	Loiti Otxoa Mikel	5.462	1:46:41	Gaztañaga Bidaurreta Miguel	8.273	2:06:26
Nogales Ramirez Fernando	2.509	1:32:43	Gomez Iriarte Roberto	5.485	1:46:48	Arizmendiarieta Mondragon Miren	8.313	2:07:05
Lasa Erle Mikel	2.545	1:32:55	Otxoa Aranzabal Gorka	5.488	1:46:48	Ruiz De Azua Galdos Pedro Maria	8.518	2:11:16
Moreno Lacasa Javi	2.560	1:32:58	Baldezate Salvador Crispin	5.555	1:47:10	Aranegi Bedia Alberto	8.638	2:15:17
Laskurain Bidaburu Aitor	2.646	1:33:30	Kristobal Azkarate Galder	5.780	1:48:16	Ayape Egidazu Fernando	8.639	2:15:17
Lezamiz Bilbao Mikel	2.669	1:33:37	Ceciaga Elexpuru Eneko	5.836	1:48:29			
Carabias Ramos Jaime	2.731	1:33:55	Basterretxea Peña Maria	5.854	1:48:36			

Debagoieneko orfeoiaren debuta



Elkarrekin lehenengo aldiz arituko dira Goikobalu eta Bergarako Abesbatza.

Arrasaten egingo du bere lehen emanaldia Debagoieneko orfeoiaren kimuak, hau da, Goikobaluk eta Bergarako orfeoia. *L. Bernstein*en "Chichester Psalms" eta *J. Stainer*en "The Crucifixion" piezak eskainiko dituzte Jon Etxabe tenoreak, David

Azurtza kontratenoreak, Jesus Garcia Arejula baxuak eta M. Jesus Ugalde sopranoak. Aitor Olea eta Rakel Murgiondo organojoleak, Ainara Moreno harpajolea eta Oihan Vega perkusiolariren babesa izango dute. Goikobaluko zuzendariak,

Iñaki Maidaganek, eta Bergarako abesbatzekoak, David Azurtzak, gidatuko dituzte. Aretxabaletako, Oñatiko eta Bergarako Aritzeta taldeen parte hartzea ere bultzatu nahi da. Datorren astean izango dute bilera bat, talde horien erantzuna jakiteko...

Umorezko bi antzezlan asteburuan

Hainbat antolatzaile eta konpainiaren eskutik egingo badira ere, asteburuan Arrasaten jokatuko diren antzezlanak bat datoz ironiaren erabileran. Kontzeziñoko Iamai kafetegiak egubakoitzerako antolatu du *La Cebra Enamorada* emanaldia. Buruko gaixotasuna duen lagun batek eta bere psikiatrak gaixoa gizartean txertatzeko pasatzen dituzten gorabeherak kontatzen zaizkigu. Logroño III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketan bi sari jaso zituen lan horrek.

ZIENTZIA FIKZIOA

Eta kontu surrealista gehiago domekan, Amaian. Sadex Profesoreak eta Rabon bere laguntzaileak homosexualitatea



Zientzia fikziozko topikoetaz barre egiten du *Hipok*.

inposatu nahi dute munduan. Mohori, polizia bokaziodun gazte bati, egokituko zaio euren plana bertan behera botatzeko patu zaila.

B serieko zientzia fikzioaren, Woody Allenen eta Monty Phytonen eragina jaso

du *Sexpeare* antzerki taldeak "Hipo" antzezlan hau sortzeko. Kritikak bere ausardia eta parodiarako trebezia azpimarratu du; hori bai, ez dago "zuzentasun politikorik". Atzetik, Yllana konpainia madrildarra dute.

Esamolde liburua aurkeztu zen

Martitzenean aurkeztu zen *Mantxut?* liburua Monterroren. Gazteei zuzendutako liburu horrek hainbat esamolde eta lokuzio aurkezten ditu, bakoitza marrazki esanguratsu batekin, eta gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko balioki-deekin. Jon Alonso idazleak eta Asisko Urmenetak elkarrekin egin dute *Mantxut?*, baina laguntzaile asko izan dituzte.

BEHARRAK ASE

Euskaldunok modu dibertigarriaz komunikatzeko dugun beharra asetzeko tresna proposatzen dute egileek. Euren ustez, erdarara jotzeko beharra askotan sentitzen dugu, eta hori gaituzte zuten helburu.

Denetarikoa esamoldeak ditugu hemen: batzuk, klasi-koengandik hartuak; besteak, hainbat eskualdetan. Baina, eurek asmatutako lokuzioak ere badaude.

Jesus Gruzetaren erakusketa

Gasteizko *La Taberna de los Mundos* kafetegian argazki erakusketa du zabalik Jesus Gruzeta argazkizale mondragoe-tarrak. Ekintza kulturalak antolatzen ditu kafetegi horrek, batez ere bidaiekin zerikusia dutenak.

INDIARA

Indiaraino eramango gaituzte Gruzetaren argazki lanek, eta hango bizimodua eta jendea erakutsiko dizkigute. Hala ere, arrastearrak pisu handiagoa ematen dio argazki tratamenduari, gaiari baino. Gasteizko Independentzia kaleko 14. zenbakian izango duzue erakusketa.

kontzertuak

JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Azaroak 24: **Medina Azahara** (2 sarrera)

Azaroak 25: **Agnostic Front + Ignite + Discipline + Forgotten + Shutdown** (sarrera 1)

Azaroak 26: **Rob Halford** (sarrera 1)

Azken eguna: datorren egubakoitza.
Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31



asteko filma



Fantasia 2000

EEBB, 1999. Animaziozkoa. Hainbat zuzendari. **Musika:** James Levine, Bruce Broughton eta Leopold Stokowski. **Kalifikazioa:** guztiondako.

HARIA

Walt Disneyk orain dela 60 urte egin zuen *Fantasia*, baina porrot egin zuen. Orain, Disney estudioek orduko hainbat zati berreskuratu dituzte eta zazpi berri sortu. Musikaren eta animaziozko teknologia berrien arteko bat-egitea da hau.

KRITIKA

Teknologia digitalak mirariak egin ditzakeen frogu dugu hau, eta film horiei musika pieza ahaztezinak gehitzen badizkiegu, maisu-lan hau xe izango dugu emaitza. Batzuetan, ipuin klasikoak jokatzeko dira; bestetan, animaliek jokatzeko koreografiak; *Mickey* eta *Donald* ere hor agertzen dira. Kontakizun barregarri nahiz serioak, baina kalitate maila berdintsua dutenak. Disneyren animazio estilo paregabearen, musika klasikozaileen eta begiendako ikuskizun onak gustuko dituzten gozameneko filma da hau.


irakurle eta entzule

Iturria: Hire

diskoak

SEN

Sen. Oihuka.



Ñabardura ugari ditu *Sen*en lehenengo lanak. Roc-karen ezkortasunarekiko grinaren antzik ez dugu hemen

ikusten. Baina, horrek ez du esan nahi pop alaia, jai girokoa, jorratzen dutenik. Malenkonia lasaia, nostalgia apurtxo bat eta, batez ere, gogoeta poetiko eta filosofiko xamurrak dira hemen nagusi, horietariko asko Jose Antonio Artze poetarengandik mailegatutakoak. "Zer nahi eta hura eman" ezaguna izan daiteke adibide bat, baina ez bakarra: zelan entzungo dugu diskoa "Begi bat", "Ezjakinak" edo "Ezertarako Astirik Gabe" bezalakoetara erparatu barik? Eta, jakina, sonak. Hau ez da *Latzen*, nahiz eta gitarrek euren kemena aldarrikatzen duten. Pop-rocka dela esan genezake, baina ez da hori zehatz-mehatz ere. Rock xuabea edo pop gogorra? Batzuetan balada antzekoekin tentatzen gaituzte, baina gitarrak eta doinu gogorrak dira *Sen*en ezaugarri nabarmenenak. Aurkezpen txartel ona *Sen* taldearena.

liburuak

DOBLE JUEGO

Ken Follett. Grijalbo arg., 412 orr.



80ko hamarkada aspaldi atzean utzi dugunean, idazleendako inspirazio iturri izaten jarraitzen du. Espien eta kontraespian arteko azpijokoen ordez, baina, beste alor batzuk dituzte

nahiago gaur egungo nobelagileek. Ken Follett britainiarra, adibidez, sasoi hartako norgehiagoka espazialean girotu du bere azken lana, eta errealitatea eta fikzioa nahasten dituen hari erakargarria aurkezten digu. Bat-batean hasten da istorioa, Luke izeneko gizon bat amnesia jotzaren esnatzen denean. Egunkarian ikusi du 1958ko urtarrilaren 29a dela, eta hiru garrenez saiatu direla estatubatuarren euren lehenengo satellite espaziala jaurtitzen, eta, berriro huts eginez gero, sobietarrek irabaziko dutela norgehiagoka espazial hori. Bere bizitzaren eta gertakizun horien arteko lotura misteriotsua antzemango du Lukek, eta bere iraganen murgildu beharko da misterio horren giltza aurkitzeko.

asteburuan zer

kontzertuak

ALBERT PLA JAMEN

Berba egitea ez zaio asko gustatzen *Albert Plari*, ez bada abestien bidez, non esaten dituen, hitz xamurrez, esan nahi dituen guztiak. Eguneroko kontuak, kontu arruntak -edo ia, ditu hizpide. Maitasuna, sexua eta heriotzaz hitz egiten hasi zen poeta-musikari gironarra, eta, pixkana-pixkana, gai horiek azken muturreraino eramanez izan ditu. Hori argi ikusten da bere gailurtzat hartu izan den lanean, 1992ko "No sólo de rumba vive el hombre"n. Umorea erabiliz, edozein gairekin ausartu izan da *Albert Pla*: "Joa-

quin el Necio"n, askok ezkutuan darmaten arrazakeria agerian utzi zuen; "Carta al Rey Melchor"en, maitasunarekiko fede sutsua agertu, eta "La Dama de la Guadaña"n, beltzez margotutako umorea islatu izan dizkigu. Handik hiru urtera, bere bena poetikoa aske utzi zuen, *Josep Maria de Fonollosa* kataluniar poemagilearen letrei musika ipiniaz. *Lou Reed*en "Walk on the Wild Side"ren moldaketa *runberoa* ere egin zuen. Doinu eta kontu horiek izango dira nagusi Jamen, zapatu gau honetan.



ANUNTXI ARANA (ANTROPOLOGOA)

“Euskal matriarkalismoaren dokumenturik ez dut aurkitu”

Antropologian doktore da Anuntxi Arana, eta euskal mitologian aditua, gai horixe aukeratu zuen-eta bere tesia egiteko. Ipar Euskal Herriko mitoak aztertu izan ditu bereziki. Datorren eguaztenean *Emakumea euskal mitologian (Goi andereak, matriarkatua eta beste mito batzuk)* izeneko hitzaldia eskainiko du Monterronen.

—Zein pisu du emakumeak gure mitologian?

—Gure zuzenbidea berdintasunean oinarritzen dela esan ohi da, eta mitologian sumatzen dela sexuen berdintasun hori. Nik, ordea, ez dut horrelakorik ikusi nire ikerketetan. Kondairetan agertzen diren gizon eta emakume bikoteak konparatu ditut, eta, oro har, emakumeak dira menpekoak. Horrekin lotuta, matriarkalismoa ere ikertu dut. Mito handienak emakumezkoak direla esaten du askok: Anbotoko anderea, laminak... Nire ikerketen arabera, egia da, bai, Anbotoko anderea oso jainko inportantea zela, baina hortxe zeuden Basajauna, jentilak edo Tartalo ere, eta ez nuke esango anderea Basajauna baino inportanteagoa zenik.

—Anbotoko anderearen inguruan besterik entzun duzu?

—Jainkotasun handia zen, baina ez dira kontuan hartu beste hainbat datu: adibidez, jatorrian neska kondentua zela, amaren aldetik edo senarrak egindako afrontarengatik. Horrek ere emakumezkoak boteretsuagoak ziren teoriaren aurka egiten du.



Euskaldunon Egunkaria

—Beraz, euskal matriarkalismoak ez du benetako funtsik.

—Nik, behintzat, ez dut aurkitu horren dokumenturik. Alde batetik, andere oso ahaltsua aurkitzen dugu, eta askok diote horrek frogatzen duela jendartearen ere berdintasun gertatzen zela. Urakanek emakumezkoen izenak izaten dituztela aipatzen dute, eta egia da urakanak indarra eta boterea adierazten duela, baina baita hainbat tokitan emaztearekin konparatu izan direlako ere, kapritxosoak-eta zirela esanez. Hori guztia ikusita, nire iritzia hau da: euskal jendartearen ez dela izugarri matxista, baina, oro har, bi sexuen artean emakumeak direla zanpatuak. Hala ere, ez da sexismo absolutua.

“Kondairetan agertzen diren gizon eta emakume bikoteak konparatu ditut, eta, oro har, emakumeak dira menpekoak”

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Soldadutzaren inguruan gorabehera edo zalantzarik baduzu, pasa zaitez bulegotik eta zein aukera dituzun azalduko dizugu.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Bilboko Arte Ederretako Museoa ikasketak edo ikerketak egiteko diru laguntzak. Epea: abenduak 22.

■ LANA

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.

■ LEHIAKETAK

• Sestaoko Gaztelekuak irudi eta ipuin fantastikoen lehiaketa antolatu du. Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako lanak, gai libre, baina fantastikoa (errealitate kanpo gertatzen den edozein fikzio mota) eta 5-10 orrialdetako luzeran idatziak (ipuinak). Epea: abenduak 1.

• Artista Berrien Lehiaketa. Arte plastiko eta ikus entzunezkoen alorreko lanak sarituko dira. 18-30 urte bitartekoei zuzenduta, aurrez saritu gabeko lanak, diapositiba edo bideo formatuan aurkeztu behar dira. Epea: abenduak 15.

• Musika Lehiaketak. San Adriango pop-rock sariketa, Villa de Bilbao sariketa eta Gazte Leiho euskal sorkuntza gaztea plazaratzeko maketa lehiaketa.

■ IKASTAROAK

• Udaleko Emakume Sailak antolatuta, hastapen mailako informatika ikastaroa, etxean lan egiten duten emakumeei zuzendua.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

Goitb

Goiena Telebista

OSTIRALA, 17

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Hamaika Magazin**
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Marijo
Deograsiasekin.
- 22:00 **Soinuz blai.** Haika
Aizpuruak aurkeztuta.
- 22:30 **Gatza eta Berakatza.**

LARUNBATA, 18

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Xeleberri, Alkatearekin
Berbetan, Hamaika
Magazin, Soinuz Blai,
Astebete.

IGANDEA, 19

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Xeleberri, Alkatearekin
Berbetan, Hamaika
Magazin, Soinuz Blai,
Astebete.

ASTELEHENA, 20

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Astebete.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**



Maider Osa.

- 21:30 **Goienasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEARTEA, 21

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Goienasport** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Xeleberri.** Mundu ero
honetan gertatzen diren
albiste xelebreen
errepasoa.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEAZKENA, 22

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Xeleberri** (errepika)
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Aurrez Aurre.**
Elgetako bi laguni
tokatuko zaie aurrez
aurre egotea. Esteban
Olaortua arotzak Iban
Arantzabal gaztearen
galderak erantzungo
ditu.



I. Arantzabal eta E. Olaortua.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

Gatza eta Berakatza

Arantzazun jarraituko dugu, Goiko Benta jatetxean. Miren Maiztegi aste honetan ere oso plater goxoak prestatuko dizkigu. Apunta itzazue osagai guztiak. Ez zarete damutuko.

NOIZ

- Astelehena, 20
- Astearte, 21
- Asteazkena, 22
- Osteguna, 23
- Ostirala, 24

PLATERA

- Txokolatzeko pastel beroa, laranja mikatzen saltsa gainean.
- Ahate-giharra madarien ardo beltz erara.
- Bakailao eta piper hostopilak tomate naturalezko konpotarekin.
- Azpizuna antzinako ziape erara, patata, kalabazin eta tipulazko oinarri gainean.
- Itsas zapo medailoiak cava erara mahats hornigaiaz.

OSTEGUNA, 23

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Aurrez Aurre.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.**
Adi zozketari. Izan ere,
aste honetan zozketatu-
ko dugu reflex argazki
kamera zoragarria lkatz
argazki dendaren eskutik.
Eta beste hamaika
kontu, noski.

- 22:00 **Soinuz Blai.** Miren
Gonzalezek aurkeztuta,
musika saioa.



Miren Gonzalez.

- 22:30 **Gatza eta Berakatza.**



Amagoia Lasagabaster.



Miren Maiztegi.

Asteburua Gatzagako mendi-etxean

Astero lehiaketa egingo da Xeleberri saioan. Gatzagako Gaztainuzketako mendi-etxean asteburua pasatzeko aukera izango duzue 943 71 23 93ra deitu ezker.



Asteburuetan badago zer ikusi



Larunbat eta igandero, geurean, GOITBn, bada zer ikusirik.

13:30ean ekiten zaio asteburuko emisioari. Bertan, eguneroko albistegi eta asteheneroko *Goienasport* saioak ezik, aste osoan emandako programak ere errepikatzen dira.

Aukera paregabea, beraz, astean zehar saioaren bat ikusi nahi, baina aukerarik izan ez duzenontzat.

Honela, 13:30ean, eta otorduari behar

bezalako hasiera emateko, aste osoan zehar emandako *Gatza eta Berakatz* sukalde programako errezetarik hoberena eskaintzen da. *Xeleberri* ondoren; Unai eta Iratxeren albistegi eroa. Eskoriatza hizpide duen *Alkatearekin Berbetan* saioa segidan. *Hamaika Magazin*, *Soinuz Blai* eta *Astebete* saioak bukatzeko. Kanpoan lanean edo ikasten zaudetenontzat, hortxe hitzordua, beraz, larunbat eta igandetan, 13:30ean.

Hamaika Magazin osteguna, 21:30

Aste honetako Hamaika Magazin saioan zozketatuko da 50.000 pezetatan baloratutako Reflex argazki makina.

Parte hartu duzuen guztiok, adi, beraz, aste honetako programari... Zu zeu izan zaitezke irabazlea-eta! Gainontzean, gai interesgarriak beteta dator oraingoan ere *Hamaika Magazin* saioa: sexualitatea, lorezaintza, Yoga...

Lehiaketan gaiari utsiz, gogoratu abian dagoela jada *Xeleberri* saioaren lehiaketa. Datorren astearteko saioan emango da ezagutzera lehenengo irabazlea. Zorte on eta presta itzazue maletak!

HAMAIIKA
MAGAZIN
Ez galdu aukerall!

Momentu berezienak behin eta berriz bizitzeko

har ezazu parte IKATZ lehiaketan!

IKATZ
ARGAZKIGINTZA
www.ikatzen.es

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoak.
- 12:00 Bi zoro eta zu.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazulatuak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasalekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**HIES
BERRI**
Tel.: 943 79 26 99

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**M
ARENAZA**
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Aretxabaletan 90 m²ko etxebizitza salgai: 3 gela, bainugela, saloia eta trastelekua. Altzariak ere badauzka. Tel.: 659 45 05 79.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 649 93 07 32.

• Etxebizitza salgai Aramaion, kalean bertan: 70 m². Salneurri interresgarria. Tel.: 655 74 59 26. Iban.

• Baños de Ebron (Arabako Errioxan) etxea salgai. 8 urte ditu. Sukaldea, txokoa, 2 logela, horma-armairuak, bainugela handia, terraza eta garajea (garajea plazara begira). Altzariduna. Tel.: 943 79 52 75. Felix.

• Etxebizitza salgai San Andresen. Tel.: 943 79 99 26. Eguerdian edo gauean deitu.

• Etxebizitza salgai Erguinen, garaiekin. Tel.: 943 77 12 77.

• Etxebizitza salgai Erguin inguruan. Tel.: 943 79 99 08. Gaeuz deitu.

2. Erosi

• Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

3. Errentan emateko

• Bergaran, etxeko logelak aloka tzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. Tel.: 943 76 15 40.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

• Etxebizitza edo gela bila gabiltzan 2 ikasle gara. Tel.: 943 74 13 93 eta 943 67 26 45.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 81 29 14. Ander (iluntzean deitu).

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko San Juan auzoan, pre-sazkoa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Eski denboraldirako, beste bi pertsonarekin edo, etxebizitza osatuko genuke Jacan. Tel.: 943 79 68 04.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Arimazubín. Tel.: 943 79 99 26. Deitu eguerdian edo gauean.

• Garajea salgai Kontzeziñon, 18,9 m²koa. Tel.: 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Larrea auzoan. Tel.: 943 79 69 41.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

• 100 m²ko lokala salgai. 2 solai-

ru. Kalealdea, 4-behean. Tel.: 943 79 42 65.

15. Errentan hartzeko

• Lasai ikasteko lokal baten bila gabiltza. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

LANA

17. Eskaintza

• Neska prest haurrak zaintzeko arratsaldetan. Deitu 943 71 58 74 telefonora.

• Mutila prest taberna batean lan egiteko asteburutan. Tel.: 943 79 17 15.

• Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 600 600 531.

• Neska prest umeak arratsalde zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketarako egiteko. Tel.: 943 79 94 20. Camila.

• Taberna batean zerbitzari lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Tel.: 653 71 87 72.

• Errotulazio lanetan esperientziaduna prest, alor horretan lan egiteko. Tel.: 653 71 87 72.

• Geriatria eta klinika laguntzaileak, gaixoak, ezinduek eta gaixo terminalak zaintzen ditu, etxean edo ospitalean, eta baita gaeuz ere Tel.: 609 77 01 33.

18. Eskaerak

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Taberna baterako pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 52 40. 19:30etik aurrera.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 79 12 81. Lanorduetan deitu.

• Oso martxa onean doan fruta dendak jabez aldatzen da. Tel.: 943 77 01 79.

• Tabernarako neska bat behar da, asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Dendaria behar da. Tel.: 943 77 06 77. Merkatariorduetan deitu.

• Esperientziadun zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. Finko egiteko aukera. Tel.: 667 60 27 69.

• Neska euskaldun bat behar da dendak batean lan egiteko. Tel.: 943 79 19 03.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Lizentziaduna, EGArekin, idazketa, irakurketa, euskara errefortzua eta LHko laguntza eskolak ematen ditu. Tel.: 649 22 51 07.

• Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dira, eta baita ikasketarako teknikak ere bai. Tel.: 630 70 81 43.

• Ingelesan magisteritza duen irakasle batek ingelesezko, euskarazko, gaztelaniazko eta matematikazko eskola partikularrak emango lituzke. Merke. Tel.: 943 79 37 17. Gaeuz deitu.

21. Eskaerak

• Gestio informatikan ingeniariatza teknikoko algoritmikorako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 76 61 02.

- Ingeniaritza Teknikoko 1. mailako marrazki ikasgaiarako eskola partikularrak behar dira. Tel.: 943 79 37 96.

- Euskarazko eskolak behar ditut. Tel.: 943 79 09 69. 12:00 - 14:00. Amaia.

MOTORRA

23. Saldu

- Renault 21 TXE autoa salgai. 175.000 pta. Egoera onean. Tel.: 667 63 93 85.

- Trialerako motorra salgai, 250 cc, 175.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

- Auto bat salduko nuke. Niba Lada 1.600 VI-O. Tel.: 943 71 50 43. Gauzez deitu.

- Opel Astra AX salgai; 1.600eko potentzia. Egoera onean, 4 urtekoa, merkea. Tel.: 617 60 84 45.

- Autoa salgai. SS - S. Oso merke. Tel.: 943 79 90 24.

- Yamaha Neo's motorra (3.500 kilometro egin ditu) salgai. Nahiko berria. Tel.: 666 05 35 49 edo 656 75 39 95.

- Yamaha FZ-750 motorra salgai.

SS-AD matrikula, egoera onean. Tel.: 659 29 84 43.

- Aprilia RS-50 motorra salgai. Iazkoa da. Tel.: 943 79 28 38.

DENETARIK

26. Saldu

- Ordenagailua salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 80.000 pta. Tel.: 676 73 40 77.

- Erabili barik dauden eskiatzeko botak salgai; zenbakia: 40. Tel.: 943 77 17 48. Gauzez deitu.

- Piragua salgai, arraun eta ontzi estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

- GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarrapoa doan. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

- Yors-Shire txakurkumeak salgai. Tel.: 943 76 18 96.

- 90 zm.ko bi koltxo salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 79 14.

- Masajea emateko mahaia salgai. Tel.: 649 22 51 07.

- 4 llanta salgai, pneumatikoekin batera. Golf 2, 5 palos. Neurriak: 185, 60, R14. Tel.: 646 76 76 52. Xabier.

27. Erosi

- Trial Sineko Monti bizikleta erosiko nuke. Tel.: 656 74 06 48.

28. Trukatu

- Egoera onean dagoen Seat Panda moto batekin trukatu nahiko nuke. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

- Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

30. Hartu

- Bizikletarik sobran badaukazu, geuk hartuko genuke. Tel.: 943 79 49 11. Jesus.

31. Galdu

- Irailaren 9an angorazko katu marroi-zuria galdu nuen. Tel.: 943 79 36 82

- Autoko giltzak galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero, deitu 943 77 17 42 telefonora.

- Urriaren 31n, gauean, taberna batek nirea ez zen txamarra bakeroa eraman nuen. Nik hartutakoa XL neurrikoa zen eta nirea L neurrikoa da; aurreko poltsiko txikian eskumuturako bat zeukan. Txamarrak elkar trukatzeko 943 71 42 74 telefonora deitu. Sergio.

32. Aurkitu

- Zilarrezko pultsera aurkitu dut. Tel.: 943 79 49 06. Gauzez deitu.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

- Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Gaur egun gazte-
txea dagoen
tokian Merze-
dariak egon
ziren 1969.
urtera arte. Urte horretako San
Fermin egunean eskola berria
inauguratu eta haraxe joan ziren.

Aste honetako argazkia
Merzedarien eskola zaharraren
oroitzapen bat da. Hain zuzen

ere, eskola haren atzealdean
dago aterata, orain espaloia
dagoen tokian. Bistan denez,
zelai antzeko bat zegoen han
eta argazkian ikusten ez bada
ere, atzetik erreka pasatzen
zen, orain lur azpitik doan
Aramaio erreka, alegia.

Argazkia 1953. urteko mar-
txoaren 14koa da; ikastetxeko
moja baten urtebetetze eguna

zen. Horrexegatik ikasleek
dotore-dotore jantzi (betiko
mantal zuriaren gainetik jer-
tse gorria ipinita eta buruan txo-
ria) eta dantza bat eskaini zio-
ten irakasleari.

Lehenengo ilaran, ezke-
rretik hasita, hauexek dira
argazkian agertzen direnak:
Beatriz Bidaburu, Ana Rosa
Bidaburu, Rosario Okina,

Milagros Abetxuko eta Itziar
Lamarain.

Beste ilarakoak, berriz,
hauexek dira, eskuinetik hasi-
ta: Conchita Garmendia, Sole
Bergaretxe, Mertxe Etxebar-
ria, Maritxu Muñoa eta Auro-
rita Pausa.

Argazkia eta berriematea:
Sole Bergaretxe

X Ezkontzak

X Bataioak

X Jaunartzeak

X Enpresa bazkariak
eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58



Gizonak
Emakumeak
UKO
Jantziak

2001.eko
udazken
neguko
denboraldia

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Telekomunikazio saltoki berrien irekiera

Arrasate

Maalako Errabala, 8-behea
Atzekaldea (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81

Eibar

Errebal, 15-behea
Tel.: 943 70 03 69
Faxa: 943 20 63 79

Euskaltel produktuen salmenta orokorra:



Emakumeentzako soldadura ikastaroa

- **Helburua:** hainbat soldadurako teknikatan emakume talde bat trebatzea, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko.
- **Norentzat:** emakume langabeentzat.
- **Ikasle kopurua:** gehienez 15 ikasle.
- **Tokia:** Olaburu Industri Poligonoan (Oñati).
- **Ordu kopurua:** 400 ordu.
- **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era.
- **Noiz:** 2000ko azaroaren 27tik 2001eko martxoaren 31 arte.
- **Izena emateko epea:** 2000ko azaroaren 24a arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.



ARRASATEKO UDALA Enplegu Saila ■



IRENTSI BIZITZA
INOIZ JAN EZ
BAZENU BEZALA.



OPEL CORSA BERRIA.

BIZITZA LABURREGIA IRUDITZEN ZAIZU KOMPROMISOAK HARTZEKO, HORREGATIK UNE ORO APROBETXATZEN DUZU ETA BEHIN BAKARRI AURKEZTEN DIREN AUKEREI HELTZEN DIEZU. OPEL CORSA BERRIAK ERABAT ASEKO ZAITU: LEKU ZABALAGOA, POTENTZIA HANDIAGO, SEGURTASUN GEHIAGO, DIBERTIMENDUA ERRUZ. BESTE GUZTIA ZURE ESKU DAGO.

BIZITZAZ GOSE.

WWW.NUEVOCORSA.COM

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g • Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN • Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86